

KULTUR ESKUBIDEEI BURUZKO FORU LEGEAREN AURREPROIEKTUA LANDU AURREKO KONTSULTA PUBLIKORAKO MEMORIA

Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikuluan aurreikusitakoarekin bat, lege edo erregelamendu baten proiektu edo aurreproiektu bat egin aurretik kontsulta publiko bat garatuko da, administrazio eskudunaren webgunearen bitartez, etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektu eta erakunde adierazgarriek iritzia eman dezaten alderdi hauei buruz:

- a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.
- b) Onespeneren beharra eta egokiera.
- c) Arauaren helburuak.
- D) Balizko konponbide alternatiboak, erregulaziokoak eta erregulaziokoak ez direnak.

Indarrean dagoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 133.1 artikulua planteatzen dituen gaiei erantzuna eman nahi die agiri honek, baita kultur eskubideei buruzko foru legearen proiektua landu aurreko kontsultarako oinarri izateko ere, araua jaso lezaketen hartzailleek zein hiritarrek, oro har, horretan parte hartzeko eta horri buruzko ekarpenak egiteko aukera izan dezaten.

A. Aurrekariak.

Nafarroako Gobernua osatzeko programa-akordioak (2015-2019 legegintzaldia) ezarri zuen kultura-politikak helburu bikoitza izan behar duela:

Batetik, gizartea kohesionatuko duten eta aniztasunean, askatasunean, sormenean, justizia sozialean, gizarteratzean, parte-hartzean eta demokrazian oinarritutako bizikidetzaren esparruak osatuko dituzten balioak eta bizitzeko eta pentsatzeko moduak sustatzea.

Bestetik, kulturaren alderdi sortzailea eta berritzailea ahalik eta gehien hedatzea, gizarte garaikideek aurre egin beharreko erronkei erantzun ahal izateko. Kultur politikaren erronka berria hurbiltasunean eta parte-hartzean oinarritutako garapen komunitarioa gauzatzea da.

Kultur politikak gidatuko dituzten printzipioen artean, kultur eskubideak aipatzen dira gizakiaren funtsezko eskubide gisa, baita Kultur eskubideei buruzko Foru Lege bat diseinatu eta lantzeko konpromisoa ere.

Kultur eskubideek arauketa espezifikorik ez dutela esan ohi da, beste giza eskubide batzuek ez bezala. Arreta txikia eman zaie, beraz, hain txikia ezen lehenetsun gutxiagoko eskubidetzat jo baitituzte batzuetan. Doktrinaren ikuspuntutik ere ez da erraz-erraza haiei aurre ematea, Nazio Batuen 1948ko Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 22. eta 27. artikuluek eskubide unibertsalak direla aitortu bazuten ere, estreinako aldiz.

B. Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.

1. Mota horretako araurik ez egotea ez Estatu mailako, ez Europa mailako testuinguruetan.
2. Kultur politikari balioa ematea, kultur eskubideekin lotura baitute.
3. Kultura arloko araudi globalik ez egotea, araudi sektorialak badaude ere.
4. Kultur eskubideen edukia eta printzipio inspiratzaileak sortzea.
5. Herritarrak inplikatzeko bultzak kulturaren baterako eraikuntzan.
7. Administrazio publikoen betekizunak ezartzea kultur eskubideen arloan.

C. Onespenaren beharra eta egokiera.

Goiko arazoak konpontzeko, batetik, eta, bestetik, herritarrentzako, oro har, artista, sortzaile, kudeatzaile, sustatzaile eta profesionalentzako, eta arloan eskumenak dituzten administrazio publikoentzako kultur eskubideei balioa emateko da beharrezkoa Kultur eskubideei buruzko Foru Legea onestea, kultur politikako testuinguru berritzaile eta aurreratuak sortuta XXI. mendean.

D. Arauaren helburuak.

Hona hemen arauaren helburu nagusiak:

1. Kultur politiken eta kultur eskubideen arteko baterako hausnarketa-esparrua izatea, baita arloko lege sektorialetarako esparrua ere.
2. Eskubide kulturalak funtsezko eskubidetzat oso-osorik aitortzea, giza eskubideen zatitzat, alegia, unibertsalak, zatiezinak eta interdependenteak baitira.
3. Kulturara iristeko berdintasunerako baldintzak ezartzea, gizarte, sektore eta lurralde arloetan oreka zein konpentsazioa lortzeko nahiak bultzatuta.
4. Kultur eskubideek gizakiaren garapen integralerako ezinbesteko oinarri gisa duten balioa nabarmentzea.
5. Nafarroako kultura- eta hizkuntza-dibertsitatea, nortasun-aniztasuna, historia sakona, ondare materiala eta immateriala zein lurraldea osatzen eta aberasten duten tradizio askotarikoak babestu eta sustatzea, ahaztu gabe erakusten duen etengabeko sorkuntza, lengoia eta adierazpide berrietan islatzen dena, kultura dinamiko eta biziaren erakusgarri baitira horiek guztiak.
6. Beharrezko esparru instituzionala ezartzea, gardentasuna eta ardurakidetasuna bermatuko dituen kulturaren kudeaketa publikoan; halaber, esparru horri esker, herritarrek eta sektoreak kultur politikak sortu ahalko dituzte, eta politika horiek Nafarroaren garapenean izango duten inpaktu kulturala ebaluatu.
7. Kultur giroa sustatzea herritarren artean; izan ere, kulturarako eskubidea gauzatuko dute, baita kultur bizitzan zein kultura- eta sormen-prozesuetan parte hartzeko eskubidea ere.

E. Balizko konponbide alternatiboak, erregulaziokoak eta erregulaziokoak ez direnak.

Kultur eskubideei balioa emateak lege-mailako arau batek ematen dituen maila eta egonkortasuna eskatzen ditu, Nafarroako Gobernua osatzeko programa-akordioarekin bat (2015-2019 legegintzaldia).

Iruña, 2017ko urriaren 4a